

7. FUNTSEZKO JARDUERAK

Geure burua publiko globalaren aurrean aditzera eman ahal izateko **azoka espezializatu** bat antolatuko genuke. Ekitaldia BECen egingo da, Smart Manufacturing arlora bideratutako herrialdeko topagune nagusian, 2027ko otsailaren 23tik 25era. Bisitari espezializatuak eta erakusketariak bilduko dira, gure balore-proposamena merkatu profesionalaren aurrean modu estrategikoan aurkezteko.

Unibertsitateetan hitzaldiak eta tailerrak egingo ditugu, gazteak kontzientziatzeko eraikuntza jasangarriaren, baliabideen kudeaketa eraginkorraren eta hondamendi naturalei aurre egiteko berrikuntzak duen garrantziaren inguruan. Hitzaldi horiei esker, ikasleak moduluzko teknologia berrietara hurbilduko dira, iraunkortasunaren arloko bokazioak sustatuko dira eta prestakuntza akademikotik erantzukizun sozialeko kultura sustatuko da.

Gainera, elkarriketa eta lankidetzak espazioak eskainiko ditugu ingeniaritza, ingurumen zientzia eta gizarte laneko fakultateekin, teoria eta praktikaren arteko zubiak sortuz eta proiektu, pasantia eta ikerketa bateraturako aukerak irekiz.

Gure enpresak **governuz kanpoko erakundeei** zuzendutako aurkezpen espezializatuak ere egingo ditu, haien Batzar Nagusietan eta Zuzendaritza Batzordeetan parte hartuz. Gune horietan erakutsiko dugu gure adreilu eta lauza modularrek larrialdiei erantzuteko gaitasuna indartu dezaketela, kostu operatiboak murriztu ditzaketela eta babesleku seguru eta iraunkorrak eraikitzea erraztu dezaketela.

Helburua laguntza humanitarioan, etxebizitza sozialean eta hondamendiaren osteko berreraikuntzan diharduten GKEekin aliantza estrategikoak sortzea da, gure teknologia zuzenean bertako programetan eta eragiketetan integra daitekeela erakutsiz.

Lehentasunen arabera, gure proiektuaren ekintza nagusia **azoka** izango da, izan ere, BECen egingo den ekitaldiak gure balio-proposamena sektoreko profesional eta enpresa espezializatuei zuzenean aurkezteko aukera ematen du, nazioarteko ikusgarritasuna handitzen du eta negozio-aukera errealak sortzen ditu; horregatik du lehentasun gorena. Bigarrenik, **unibertsitateetan emango diren hitzaldiak** kokatzen dira, etorkizuneko profesionalengan eragina izateko, talentu berria erakartzeko eta gure proiektuaren inguruan komunitate akademiko sendo bat eraikitzeke aukera ematen dutelako; horrek epe ertain eta luzeko garapenerako balio estrategikoa du. Azkenik, **GKEetarako hitzaldiak** hirugarren lehentasunean jartzen dira, garrantzitsuak badira ere inpaktu sozial eta komunitarioa handitzeko, ez baitute lehen bi jardueren bezainbeste eragin komertzial edo merkataritza-estrategikorik, eta beraz, helburu nagusiari zuzendarik ez diotelako hainbeste ekarpen egiten.